

udaltop

UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK



IZENBURUA:

Eta PREStatzen badugu lan mundua?

EGILEA:

Ainhoa Mendibil Artetxe
Jon Ander Loidi Garitano

DATA:

2018/05/18

udaltop

UDALETAKO EUSKARA
ZERBITZUEN TOPAKETAK
www.udaltop.eus



Aurkibidea

1. Testuingurua	3
2. Prest dinamika.....	6
3. Ondorioak.....	9
4. Asmoak	12



1. Testuingurua

Fagor Ederlan 4.000 langileko kooperatiba da. Horietatik 2.500 inguru ari dira Euskal Herriko plantetan, eta gainerakoak Euskal Herritik kanpokoetan.

Orotara, 18 planta, 2 aliantza, 8 bulego komertzial eta zentro teknologiko bat ditu mundu zabalean, eta gutxi gorabehera erdiak Euskal Herrian. Debagoienako hainbat herritan, Usurbilen eta Tafallan.

Automozioan erreferente da chasis eta power-train esparruetarako piezen ekoizpenean, punta-puntako bezeroen hornitzaile gisa. Balazta disko eta danborrak, pintza eta balazta azpimultzoak, portamangetak eta besoak, aurreko zutabeak eta motor transmisiorako osagaiak ekoizten ditu.

Fagor Taldeko partaide da, langile dimentsioari begiratuta handiena gainera, eta fakturazio datuari erreparatuta 624 milioi euroko salmentak izan zituen 2015ean. Fagor Taldeko kide den neurrian, noski, Mondragon korporazioko parte ere bada.

Aurkezpenarekin aurrera jarraitu aurretik, zehaztu beharra daukagu ondoren aurkeztuko dugun PREST dinamika Euskal Herriko planta guztietan egin dela esango dugun arren, ez dela erabat egia. Aipatu bezala, Tafallan ere badago Fagor Ederlan taldeko kide den planta bat, baina hori bera beste kooperatiba bat da bere horretan, eta hortaz, badira Euskara Plana bezalako hainbat kontu, aparte garatzen direnak.

1.1. Kooperatiba eta eraldaketa soziala

1963. urtean sortu zen hiru urte beranduago Ederlan izena hartuko zuen kooperatiba. Esteibar fundizioak, Comet Industriak eta Talleres Uribesalgok elkarrekin sortu zuten Ederlan, hirurak elkar hartuta. Debagoienan gertatu zen hori, Eskoriatzan zehatzago, eta noski, Jose Maria Arizmendiarietaren bueltan. Orduko sortzaileetako batek esana da, "Arizmendiarietak Mondragoneko linea zuritik atera eta fundizio bat sortu nahi zuela", eta halaxe eratu zela Ederlan.

Jose Maria Arizmendiarietak bere garaian sustatutako kultura kooperatiboa gaurdaino iritsi da. Garaian garaira egokitzeko gaitasunarekin, baina inoiz kooperatibaren egiteko soziala bazter utzi gabe. Zentzu horretan, euskara biziberritzeko ardura aspaldi hartu zuen Debagoienako proiektu kooperatiboak. Komunitate bati lotuta sortzeak, komunitate horretan izandako eraginen aurrean erantzukizunez jokatzeari dakar, nahitaez.

Amaia Balda Emuneko Lehendakariak Lurralde eta Hizkuntza graduondokoaren harira egindako ikerketak erakusten du nola, beste hainbat faktorek bezala, industrializazioak, eta tartean kooperatibek hortaz, eragin izugarria izan zuten Debagoienako egoera soziolinguistikoan.

1900. urtean Arrasaten biztanleen %100a euskalduna zen bezala, 70 urte beranduago %43koak baino ez zekien euskaraz. Eta horrek erabateko lotura dauka industrializazioak herrira ekarritako langile kopuruarekin eta horien jatorriarekin, noski. 70 urte horietan Arrasateko biztanleria seikoiztu egin baitzen.



Lehen industrializazioak, hala ere, ez zuen apenas eragin Arrasateko egoera soziolinguistikoan. 3.713 biztanle izatetik 7720 izatera pasa arren, etorri berri gehienak eskualdeko gainerako herri euskaldunetatik etorri ziren, eta ondorioz, kultura eta hizkuntza bera ekarri zituzten berekin. Hurrengo 40 urtean, ordea, erdal hiztunak izan ziren industriak bultzatuta Arrasatera etorritakoak, eta orduan bai, 40 urtean %97ko ezagutza batetik %43ko ezagutzara pasa zen Arrasate.

Horrek, ezinbestean, kooperatibek euskararen biziberritzea ere beraien egiteko sozialen artean kokatzea ekarri zuen. Eta hala, kooperatibetan bertan emandako lehen euskara eskolak 70. hamarkadakoak dira. Ordukoak dira euskara komiteak, Euskararen aldeko Manifestua, euskarazko lehen errotuluak, lehen ekimenak, Lazkaoko Topagunea...

80. hamarkadako krisialdiak etenaldia eragin bazuen ere, 90. hamarkadan bigarren bultzada iritsi zen. Zalantzarik gabe, gaur egun ezagutzen ditugun lan munduko Euskara Planen hazia. 1990. urtean jarri zen martxan Elayko euskara plana eta horren ondotik etorri ziren Euskara Batzordeak, Euskalan elkarteak bera (Arrasate Euskaldundu Dezagun euskara elkartearen bultzadaz sortutako elkarteak) edota Arrasateko hamaika enpresatako Euskara Planak.

Lehen kokapen hau egin gabe ezin azaldu dezakegu Fagor Ederlanen Prest dinamika ulertzeko testuingurua.

Enpresa kooperatibo batean, eta euskararen biziberritzean erantzukizunez eraikitako Euskara Plan baten baitan sortu zen Prest eta hala ulertzen da ondoen.

1.2. Euskara Plana hogeitaz urtez

Hogeitazko ibilbidea dauka Fagor Ederlango Euskara Planak. Horrek, noski, forma ugari hartu ditu denboran eta pausuak eman ahala, esperientziak aberastu egin du plana. Hasierako borondateak eta Euskara Batzordeetako kideen jardun militanteak Euskara Planaren erakundetzeari eman dio bide azken hamarkadan, biak uztartuz batzuetan, eta bietako bat gailenduz beste batzuetan. Esan beharrik ez dago, euskaraz lan egin nahi duten langileek orain hogeitaz urte baino askoz aukera gehiago dutela orain.

Datuei erreparatuz gero, tamalez kosta egiten zaigu azken hogeitaz urteen bilakaera oso bat azaltzea. Batetik, Emunek bere azken diagnostiko tresna teknologikoa 2008an garatu zuelako eta hortaz datu osoak 2008tik aurrerakoak direlako, eta bestetik, hogeitaz urtean Ederlan bera ere asko aldatu delako. Eta horrek, noski, datuen bilakaera lineala baldintzatu du.

Edozein kasutan, badugu esanguratsua den datu bat, enpresaren dimentsioa dimentsio, urtero errepikatzen den Batzar Nagusiarena. 2002. urtekoa da Batzar Nagusiko lehen datua, eta %19 egin zen euskaraz orduko Batzar hartan.



Hamabost urte beranduago, 2017an, Batzar Nagusiaren %86a euskaraz egin zen. %67ko gorakada horretan eragina izan dute, noski, aldibereko itzulpenaren alde egindako apustuak, euskaldunek euskara hutsez hitza hartzeko hartutako erabakiak, urteetan enpresan bertan euskaldundutakoen kopuruak edota nola ez, langile berrien euskara ezagutzak. Esan dezakegu, beraz, 2017an gaztelaniaz egin zen %14 hori, gehien genienean, euskaraz ez dakitenean ahotik etorri zela.

Ezagutzari begiratzen badiogu ere, azken sei urteetan elebitasun tasa %63tik %70era igaro da, Fagor Ederlanen bertan euskaldundutako langileei eta enpresara sartutako langile euskaldunei esker

Motibazio datuek ez digute argazkia okertzen. Proiektu kooperatiboa den neurrian, Euskara Planak ere langileen arteko partaidetza sustatzen du, eta horrek atzera langileen Euskara Planarekiko atxikimenduan eragiten du.

Ezagutzan, erabileran eta motibazioan lortutako emaitza horiek bere horretan onak izateaz gain, bestelako erabaki batzuk ahalbidetu dituzte, gainera. Hau da, onerako tendentzia hori mantendu ez ezik sustatuko duten neurriak hartu dira erakundetzearen laguntzaz: Fagor Ederlango organo guztien egitekoetan ageri da Euskararen biziberritzea, laneko ekipo orok euskararen erabilerarekiko helburuak lantzen ditu, elebitasuna gaindituta euskarari lehentasuna ematen dion Hizkuntza Politika berria onartu berri da 2017an, eta areago, urte honen hasieran Ederlango lanpostu guztiei euskara eskakizuna zehaztu zaie eta erabakia hartu orduko araua %100ean bete da kontratazio berrietan.

Finean, oraindik egiteko asko egon arren, euskaraz lan egiteko aukerak hainbat arau-babes eta babes sozial lortu du azken urteotan. Horrek ez du, baina, inoiz, euskal hiztunaren borondatea ordezkaturiko. Eta arau eta neurrietan aurrera egin arren, ez gaitezen engaina, badago horretarako arriskua ere. Motibazioa eta hiztunen konpromisoa sustatzeari uzteak, ez digu mesederik egingo; ez behintzat euskarak hizkuntza minorizatua izaten jarraitzen duen bitartean. Arau eta giza babesik onena landutako enpresa ere ez baita irla bat gizarte honetan.

Horregatik, euskal hiztunaren aktibazioan sakontzeko beharretik, sortu zitzaigun PREST dinamika martxan jartzeko ideia.



2. PREST dinamika

Euskal hiztunaren aktibazioan sakontzeko beharretik sortu zitzaigun PREST martxan jartzeko ideia, bai, baina baita, eta bereziki, nori jarraitua izan genuelako. Egia, Agurain, Lasarte-Oria... ordurako ekimen guzti haiek euren fruitua emana zuten, eta guk ilusioz begiratu genien urrutitik. Lasarte-Oriako Ttakuneko Joxe, Naiara eta Arantxiri, gainera, laguntza ere eskatu genien hasierako lanetan, materialak eta bestelakoak lortzeko. Eskerrak herrigintza elkarrekin egiten den.

2.1. Zer da Prest

Alferrik luzatuko gara PREST zer den gehiegi azaltzen. Finean, izan ere, ez dauka Egian, Lasarte-Orian, Agurainen edo gerora beste hainbat eta hainbat herritan errepikatu denarekin desberdintasun handirik.

Praktika proposamen bat da PREST. Hilabeteko denbora tartean, eta horretarako izena ematen duten pertsonen artean osatutako praktika bat. Erabat publikoa eta publikoki garatutakoa, eta helburu gisa partehartzaileen, eta behar bada ikusle pasiboen, hizkuntza ohiturak aldatzea helburu duena.

Gainerako lekuetan bezala, partehartzaileek hautatu zuten zein rol jokatuko zuten dinamikan. Kasu honetan, baina, Ahobizi izatea hautatu zutenak Ahobizi izan ziren hilabete osoan zehar, eta berdin Belarriprest izatea hautatu zutenak.

Bestelako misterio handirik gabe, aurrez izena emateko kanpaina eginda, eguna iritsitakoan praktikari ekin genion partehartzaileok; harriduraz, ezjakintasunez edota indiferentziaz begiratu zuten albotik gainerakoek. Pasa zen hilabete, neurtu genituen erabilera eta partehartzaileen animoak, eta hurrengo ekimenean pentsatzen hasi ginen.



2.2. Zoriontsu bizitzeko modu bat



Ekimenaren helburuak euskal hiztunaren aktibazioa eta hizkuntza portaeren aldatzea izanik ere, hasiera hasieratik egotzi genizkion ekimenari bestelako zeharkako helburu batzuk ere. Gure ustez, bederen, lana ondo eginez gero ekimenak ekarriko lukeen balio erantsiaz ari gara. Esan nahi baita, PREST bezalako ekimen bat ondo lantzerakoan, euskal hiztunak aktibatu eta hizkuntza portaerak aldatzen hasteaz gain, lortu dezakegula langileen enpresarekiko gogobetetzean eragitea, lan giroa hobetzea, ondorioz langileen arteko kohesioan sakontzea eta finean, kultura kooperatiboan aurrera egitea.

Gertatzen baita, izena eman duten partehartzaileek bat-batean elkarbanatzen duten helburu enpresarialari beste helburu bat gehitzen zaiola, sarri barruak ukituko dizkiena gainera, eta are, harremanduko dituen beraien artean lantegiaren ohiko jardunean harremanik ez duten pertsonak. Esan beharrik ez dago hori lortzeko erakunde enpresariala, bere organu gorenetatik hasita, inplikatzan denean horrelako zerbaiterako, horrek langilearen gogobetetzean eragina duela, jasotzen baitu enpresaren aldetik bere ongizatearekin lotura duen eskaintza bat, berari interesatzen zaiona.

Horregatik erabaki genuen guk euskararen erabilera helburuak eta balizko partehartzaile kopuruaren erronka ezkutatatu gabe, kanpainaren leloa bestelakoa izatea: *“Zoriontsu bizitzeko modu bat”*. Benetan sinisten baikenuen, eta sinisten dugu gaur egun ere, horrelako praktikak zoriontsu bizitzeko modu bat direla.



2.3. Neurriko erronka

Argi izan genuen partehartzaile kopuruari begirako erronka bat jarri nahi geniola gure buruari. Eta kopuru hori publiko egingo genuela, erronka hasieratik jendarteratzeko. Neurria hartu nahi genion geure buruari; nola gaude, nora iritsi gaitzke. Eta Lasarte-Oriako zenbakiei erreparatu genien gureak egiteko: Kooperatibako plantaka zehaztu genituen erronkak, batean eta bestean dauden pertsona kopuruak desberdinak dira eta. Beraz, bakoitzean euskara ezagutzen duten (ulermen maila) pertsonen erdiek izena ematea lortu nahi genuela adostu genuen. Zenbat Ahobizi eta zenbat Belarriprest behar genituen zehaztu gabe.

Badakigu Ahobizi eta Belarripresten zehaztapen ezak hutsaldu egin dezakeela praktikaren alde zientifikoa, edo bestela esanda, zaildu praktikaren emaitza positiboak, baina hori jakinda ere, hala egitea erabaki genuen bi arrazoirengatik: batetik horrelako zerbait egiten genuen lehen aldia zenez azalpenak eta egin beharrekoak sinpletu nahi genituelako ahalik eta gehien, eta bestetik, kanpaina bakarra egin nahi genuelako Ederlan guztian eta ez plantaka banatua, eta Ahobizi eta Belarriprest kopurua zehazteak derrigortuko gintuelako kopuru horiek ere plantaka banatzera eta zatikako komunikazio gehiago sortzera.

Hortaz, Fagor Ederlanek Euskal Herrian zituen 1969 langileetatik 590 pertsonaren partaidetzaren bila abiatu genuen izen-emate kanpaina eta %95ean bete genuen helburua, 560 pertsonak hartu baitzuen parte.

2.4. Borondatea, bide formaletik

Hasieran aipatu dugu izen emate kanpaina bat izan zuela Prest dinamikak. Ohikoa da hori, noski, dinamika edozein lekutan eginda ere. Baina enpresa bat ez da edozein leku, eta horregatik, kanpainari aipamen labur bat egitea zilegi iruditu zaigu. Kanpainaren nolokotasunak dinamikaren emaitzan garrantzia izan zuelakoan baikau.

Dinamika hau borondatezko dinamika bat izan zen, noski. Eta langile bakoitzak erabaki zuen parte hartu ala ez, bere laneko erantzukizunak aparte utzita. Baina langileengana iristeko moduak, zorionez, bietatik izan zuen. Borondatezko edo nahi bada bide paraleloetatik egin zen kanpaina bai, baina kooperatibak ohiko dituen bide formal eta "normaletatik" ere bai.

Hasieratik bilatu genuen organo sozial eta exekutiboen inplikazioa, eta zentzu horretan, bazkideen batzarrak izan ziren kanpaina abiatu zen eszenatokia. Besteak beste, enpresaren gainerako gai garrantzitsuak lantzen diren plaza bera, beraz. Lehenago ikusitako aurkezpen bideoa izan zen kanpainarako, kartekez gain, erabilitako euskarri garrantzitsuena eta bide biak uztartzeko tresna bikaina izan zen. Bideo horrek kanal formal zein informalak pasa zituen, eta bideoko parte hartzaileak eurak ere bi alderdien erakusle garbia dira. Ageri baitira enpresako zuzendari orokorra edota lehendakaria, Kontseilu Sozialeko kidea, baina maila berean daude gainerako ardurak gabe bere zortzi orduko lana egiten duen bazkidea, beteranoa eta sartu berria.

udaltop

UDALETAKO EUSKARA
ZERBITZUEN TOPAKETAK
www.udaltop.eus



Enpatia ariketa izugarria sortu zuen bideoak. Denentzat ere, nor bere plantan eta bere lekuan, ezagunak eta sarri erreferentzia ziren pertsonak ageri baitziren bideoan. Eta hori nahikoa ez, eta enpresaren ohiko kanaletatik dinamikaren berri jasotzeak garrantzia, prestutasuna eta hedapena eman zizkion dinamikari.

Lasai esan dezakegu, hortaz, langile guztiek, euskaldun zein erdaldun, izan zutela dinamikaren berri. Eta horrek berak lagundu zuela partaidetza bilatzen, eztabaida sustatzen, eta hurrengo edizioetarako balizko partaideak kuriositatez betetzen.



3. Ondorioak

Ondorio onak dituzue guztiak. Horrelako saiakera batek ezin dio osasunari kalterik egin.

3.1. Langileen arteko kohesioa

Enpresak komunitate batetako parte diren moduan dira komunitate baten baitan mikro komunitate bat. Eta hori, horrelako dinamika bat garatzerakoan laguntzen duen zerbait izateaz gain, sendotzen den zerbait ere bada.

Euskara Planen metodologiari segika, Euskara Batzordeak izan ziren dinamikaren sustatzaile nagusiak, eta edozein herritan egingo litzatekeen gisara, gainerako lankideekin hitz egin eta inguruan parte hartzeko deia zabaltzea izan zen euren egiteko nagusia. Horrek, nahitaezean, langileen arteko harremana eta kohesioa sustatu zituen, eta kafe orduetako plazara eraman zuen lan munduan euskaraz jardutearen inguruko berriketagaia. Gainera, Ahobizi eta Belarripresten dinamikak hala egiten duelako, aukeretara mugatu zen berriketa. Hau da, erdaldun elebazarrek eta euren aldeko diskurtso biktimistak ez zuen eztabaida kutsatu, ez eta bataren edo bestearen komunikatzeko ezintasunak. Norberaren borondatearen eta aukeren arabera praktika proposatzen du Ahobizi eta Belarripresten arteko ariketak eta horrek berriketa gako positiboetan garatzeko bidea egiten du.

3.2. Pozik, harro, aske eta eroso


Erronka kuantitatiboa %95ean beteta, jakin nahi izan genuen dinamika *zoriontsu bizitzeko modu bat* izan zen ala ez zen izan. Eta hori lortzeko, behin hilabetea pasata galdetegi bat bidali genien parte hartu zuten Ahobiziei. Lasarten ere galdetegia Ahobiziek bete zutelako egin genizkien galderak, baina berriz egin beharko bagenu guztiei bidalik genieke galdetegia.

Partehartzaileek eurek aitortutakoaren arabera, eta dinamikan zehar zein sentimendu bizi izan zituzten galdetuta, %38ak poza, %21ak harrotasuna, %16ak askatasuna eta %14ak erosotasuna bizi izan zituzten. Bestelako hainbat sentimendu ere aukeratu zituzten partehartzaileek eta guzti-guztiak izan ziren positibotzat kategorizatu ohi diren sentimenduak.



3.3. Hamaika puntu

Sentimenduei buruz galdetu genien inprimaki berean eskatu genien Ahobiziei beraien erabilerari buruzko datuak emateko: dinamika hasi aurretik, tartean eta behin bukatutakoan zenbat euskara erabili zuten galdetu genien. Ahobizien erabilerari aitortuari erreparatuta, beraz, 11 puntu egin zituen gora. Tamalez, dinamika bukatu eta hilabete batzuetara berriz galdera egitea falta izan zitzaigun, erabileraren gorakada horren finkatzea neurtzeko.



3.4. Kontuan hartzekoak

Besteak beste ikasteko proba pilotu gisa ulertu genuen guk PREST. Eta zentzu horretan, ondo gogoan ditugu hurrengoan hobetu nahi genituzkeenak. Dinamika azaldu ahala ere izendatu dugu bat edo beste.

Lehenengo eta behin, eta 2017an dinamikaren izen ematea martxan jarri orduko ohartu ginen honekin, kontuan hartu behar dugu zein den horrelakoek daukaten arriskua: ariketa behar den moduan ez ulertzea. Jakin badakigu euskararen, eta beste mila konturen, aldeko kanpaina mordoa egin izan direla gure herrian, eta horrek dinamika desitxuratzeko arriskuan jartzen du. Egin nahi duguna behar den moduan komunikatu ezean, partehartzaileek ez dute bi bider pentsatuko izena eman aurretik, ez diote beren buruari galdetuko zein rol jokatzeko prest dauden, eta ondorioz, dinamika hasterakoan ezer gutxi aldatuko da euren hizkuntza ohituretan. Kuantitatiboki emaitza zehatz batzuk lortu nahiak ezin du emaitza kualitatiboak baldintzatu, eta beraz, zintzo jokatu behar dugu eta behar den moduan azaldu hau ariketa praktikoa bat dela, bere zailtasunak dituen, eta gutxi-asko denoi esfortzu bat eskatuko diguna.

Horrek ez du esan nahi, ordea, partehartzaile guzti-guztiek ariketa behar den moduan beteko dutenik. Egongo dira ezer aldatu ez eta praktikara salto egingo ez dutenak, eta helburu kuantitatiboak handitu ahala, kopuru hori ere handitu egingo da. Errore margen horrekin jokatu beharko dugu; hori dakar anbizioz jokatzek.

Dinamika baloratzena begira, esan berri dugun moduan, bukaeran pasatako galdetegian akats bi egin genituela iruditzen zaigu: galdetegi Belarriprestei ere ez bidali izana, eta erabilerari buruz galdetzen hasita, dinamika bukatu eta 6 hilabetera berriz ez galdetzea. Horrek ariketa baloratzeko informazio osatuagoa emango ligukeelakoan gaude.



Azkenik, azpimarratzekoa iruditzen zaigu dinamika antolatzeko modua. Dinamika hau euskara plan bat urte luzez daukan enpresa batean garatu izana ez da kasualitatea, gure ustez. Eta iruditzen zaigu bi metodologiak, Ahobizi eta Belarriprestenak eta euskara planarenak elkar elikatu dutela, elkar aberasteko. Gurea bezalako neurriko enpresek euskara plan bat izateak, pertsona asko eta askori euskaraz bizitzeko espazio bat eskaintzen die. Euren egunero-koan, lanetik kanpo, hala egin ezin duten askok erabiltzen dute euskara Ederlanen. Eta zentzu horretan, hein handi batean Fagor Ederlan mikro komunitate gisa ulertzeak ahalbidetu digu jatorri, eremu eta errealitate oso desberdinetako pertsonak ariketa hau elkarrekin osatzea.

4. Asmoak

Esan dugu PREST “ikasteko proba pilotu bat” izan zela, eta halaxe izan zen. Hasieratik, Fagor Talde osora hedatzeko asmotan eraikitako froga bat izan zen eta emaitzak ikusita, beraz, hedatzeko modukoa.

Udaberri honetan ginen Fagor Taldean dinamikarekin hastekoak, baina Euskaraldiaren berri izan orduko erabaki genuen nahiago genuela Fagor Taldean ere Euskaraldiaren garai berdinean aritzea. Eta horrela, hamaika egunez hamaika aldiz gehiago jardutea euskaraz.

Lehen esandakoaren haritik, enpresak komunitatean kokatutako mikro komunitateak ere badira, eta beraz, Euskaraldian Fagor Taldea herri bat gehiago izango da, kooperatibaz kooperatiba eta plantaz planta, auzoak bailiran, lan egingo duena.